

KARROTXO

Behin batean Eroskin karroak batuta zeuden, bat izan ezik, suelto zegoen parkinean. Egun batean baserritar bat etorri zen eta ikusi zuen parkinean karro bat erruberak gastatuta. Gainera grafitiak zeuzkan eta orduan etxera eraman zuen. Etxera eraman zuenean, baserritarrak haizezko errubera handiak jarri, pintatu eta bere umeei erakutsi zien.

Umeak poz-pozik jarri ziren eta orduan bururatu zitzaien bolante bat jartzea.

Holaxe aldapa handiak jaisten zituzten, hori bai, etxeko lanak bukatutakoan.

Gaur egun, lehen umeak zirenak orain helduak dira eta oraindik akordatzen dira bere aita karroa etxera ekarri zuen eguna eta orain umeei uzten die karroa. Oso ongi zaintzen dute karroa.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila karrotxoren saskian.